# LE ROSAIRE

*Le rosaire est une forme de prière répétitive qui existe depuis le XIIème siècle. Chaque mystère est annoncé ou médité et suivi d'une dizaine de chapelets. Cette dizaine commence par un « Notre Père », puis le « Je vous salue Marie » est récité 10 fois. Au terme de cette dizaine, on conclut par une prière de louange.*

*Par exemple :*

*Gloire au Père, et au Fils*
*et au Saint-Esprit*
*comme il était au commencement,*
*maintenant et toujours,*
*et dans les siècles des siècles. Amen.*

*Cette récitation peut accompagner une intention de prière ou une demande (pour soi ou pour les autres) qui s'appuie sur le passage de la vie du Christ et de la Vierge, évoqué dans l'Évangile en lien avec le mystère.*

*L'Église a coutume de répartir la prière et la méditation de l'ensemble de ces mystères du rosaire sur les jours de la semaine, pour qu'ils irriguent ainsi l'ensemble de la vie :*

- *le lundi et le samedi : les mystères joyeux,*
- *le mardi et le vendredi : les mystères douloureux,*
- *le mercredi et le dimanche : les mystères glorieux,*
- *et le jeudi : les mystères lumineux.*

*« Le rosaire est ma prière préférée. C'est une prière merveilleuse. Merveilleuse de simplicité et de profondeur. Dans cette prière, nous répétons de multiples fois les paroles de l'Archange et d'Élisabeth à la Vierge Marie. Toute l'Église s'associe à ces paroles. »* Saint Jean-Paul II

*« Quand on récite le chapelet, on revit les moments importants et significatifs de l'histoire du salut ; on parcourt de nouveau les différentes étapes de la mission du Christ. Avec Marie, on tourne son cœur vers le mystère de Jésus. On place Jésus au cœur de notre vie, de notre temps, de nos villes, à travers la contemplation et la méditation de ses saints mystères de joie, de lumière, de douleur et de gloire... »* Benoit XVI

*« Le rosaire est la prière qui accompagne tout le temps ma vie. C'est aussi la prière des simples et des saints. C'est la prière de mon cœur. »* Pape François





# ARROSARIOA

*Arrosarioa XII. mendeaz geroz errepikatuz erraiten den otoitza da. Misterio bakotxaren titulua eta funtsa meditatu ondoan, hamarreko bat erraiten da.*

*Hamarreko hori « Gure Aita » batekin hasten da, gero 10 « Agur Maria ». Hamarreko horren bururatzeko, gorespen otoitz bat.*

*Etsenplu bat :*

*Ospe Aitari Semeari,*
*bai Izpiritu Sainduari.*
*Lehen bezala orai ere,*
*Hala dadila betiere. Amen.*

*Otoitz horrekin erran daitezke ere otoitz xede edo galde zonbait (norbera edo bertzeentzat), ebanjelioan Kristo eta Birjinaren biziari lotua den misterio berezi hortan. Kanta daitezke « Elizaren Ama » kantikak dauzkan kopla bereziak* (ikus 252-254 or.).

*Elizak hunela banatzen ditu arrosarioko misterio horien otoitz eta ausnarketa, asteko egunetan barna, bizi guzia urezta dezaten :*

- *Astelehen eta larunbatetan : Misterio zoriontsuak*
- *Asteart eta ostiraletan : Oinazezko misterioak*
- *Astezken eta igandetan : Loriozko misterioak*
- *Eta ortzegunetan : Misterio argitsuak.*

*« Arrosarioa ene otoitzik maiteena da. Otoitz zoragarria da. Xinpleziaz eta barnakortasunez zoragarria. Otoitz hortan, aingerua eta Elixabetek Mariari erran zizkioten hitzak ainitz aldiz errepikatzen ditugu. Eliza osoa hitz horieri juntatzen da. »* Jean-Paul II saindua

*« Arrosarioa erraiten dugularik, salbamen historiaren memento garrantzitsu eta berezienak oroitarazten ditugu ; urratsez urrats, Kristoren misionea segitzen dugu. Mariarekin, gure bihotza Jesusen misterioari buruz itzultzen dugu. Jesus gure bizi, mende eta herrien erdi-erdian ezartzen dugu, alaitasun, argi, min eta ospe misterio horiek meditatuz. »* Benoit XVI

*« Arrosarioa betidanik ene bizi guziko otoitza da. Xinple eta sainduen otoitza. Ene bihotzeko otoitza daukat. »* Frantses Aita saindua

## ☙ Mystères joyeux - Naissance du Christ

### 1. L'Ange Gabriel annonce à la Vierge Marie qu'elle sera la mère de Dieu

L'ange Gabriel fut envoyé par Dieu (…) à une jeune fille vierge, (…) et le nom de la jeune fille était Marie. L'ange entra chez elle et dit : « Je te salue, comblée de grâce, le Seigneur est avec toi. (…) Voici que tu vas concevoir et enfanter un fils ; tu lui donneras le nom de Jésus. Il sera grand, il sera appelé Fils du Très-Haut » (…) Marie dit alors : « Je suis la servante du Seigneur ; que tout m'advienne selon ta parole. » *(Luc 1, 26-28.31-32.38)*

### 2. Marie visite sa cousine Élisabeth

En ces jours-là, Marie se mit en route et se rendit avec empressement vers la région montagneuse, dans une ville de Judée. Elle entra dans la maison de Zacharie et salua Elisabeth. (…) Alors Elisabeth fut remplie de l'Esprit Saint, et s'écria d'une voix forte : « Tu es bénie entre toutes les femmes, et le fruit de tes entrailles est béni. (…) Heureuse celle qui a cru à l'accomplissement des paroles qui lui furent dites de la part du Seigneur. » *(Luc 1, 39-40.42.45)*

### 3. Jésus naît à Bethléem

Pendant qu'ils étaient là, le temps où elle devait enfanter fut accompli. Et elle mit au monde son fils premier-né ; elle l'emmaillota et le coucha dans une mangeoire, car il n'y avait pas de place pour eux dans la salle commune. *(Luc 2, 6-7)*

### 4. Jésus est présenté au Temple

Quand fut accompli le temps prescrit par la loi de Moïse pour la purification, les parents de Jésus l'amenèrent à Jérusalem pour le présenter au Seigneur, selon ce qui est écrit dans la Loi : « Tout premier-né de sexe masculin sera consacré au Seigneur. » *(Luc 2, 22-23)*

### 5. Jésus est retrouvé au Temple

En le voyant, ses parents furent frappés d'étonnement, et sa mère lui dit : « Mon enfant, pourquoi nous as-tu fait cela ? Vois comme ton père et moi, nous avons souffert en te cherchant ! » Il leur dit : « Comment se fait-il que vous m'ayez cherché ? Ne le saviez-vous pas qu'il me faut être chez mon Père. » *(Luc 2, 48-49)*





## ☙ Misterio zoriontsuak - Kristoren sortzea

### 1. Mariari mezua

Seigarren hilabetean, Jainkoak Gabriel aingerua Nazaret deitu Galileako herri baterat igorri zuen, birjina batenganat (…) Maria. Harenganat sarturik, aingeruak erran zion : « Bozkaria zaite, Jainkoak atsegin zaituena ! Jauna zurekin da. Hara, haur-beharretan gertatuko zira, semea ukanen duzu eta Jesus emanen diozu izena. Handia izanen da, Goi-goikoaren Seme deituko dute (…). Mariak erran zuen : « Huna Jaunaren neskatoa. Gerta bekit zuk erran bezala. » *(Luk 1, 26-28.31-32.38)*

### 2. Maria Elisabeten ikustera joana

Egun heietan abiaturik Maria, Judeako mendialdeko herri baterat joan zen haiahaia. Zakariasen etxean sartu eta Elisabeti agur egin zion. (…) Izpiritu Sainduaz betea izan zen Elisabet. Oihu handi batean erran zuen : « Emazteetan benedikatuena zu, eta benedikatua zure sabeleko fruitua ! (…) Dohatsua zira, sinetsi baituzu Jaunaren partez erran zaizuna beteko dela ! » *(Luk 1, 39-40.42.45)*

### 3. Jesusen sortzea Betleemen

Betleemen zirelarik, haur-ukaiteko egunak bete zitzaizkion, eta bere lehen-semea ukan zuen ; troxatu eta otalako batean ezarri zuen, tokirik ez baitzen heientzat ostatuan. *(Luk 2, 6-7)*

### 4. Jesus tenploan eskainia

Moisen legeak manatu garbiketaren egiteko egunak bete zitzaizkiotenean, Jesus Jerusalemerat ereman zuten Jaunari eskaintzeko, Jaunaren legean idatzia baita : Lehen-seme guziak Jaunari sagaratuko zaizkio. *(Luk 2, 22-23)*

### 5. Jesus tenploan 12 urtetan

Ikusi zutenean, balditurik gelditu ziren, eta amak erran zion: « Haurra, zergatik egin daukuzu holakorik ? Aita eta biak oinazetan gabiltza zure bila ! » Harek erran zioten : « Zergatik zinabiltzaten ene bila ? Ez ote zinakiten neure Aitaren etxean izan behar dutala ? » *(Luk 2, 48-49)*

## Mystères lumineux - Vie publique du Christ

### 1. Le baptême de Jésus dans le Jourdain

Comme tout le peuple se faisait baptiser et qu'après avoir été baptisé lui aussi, Jésus priait, le ciel s'ouvrit. L'Esprit Saint, sous une apparence corporelle, comme une colombe, descendit sur Jésus, et il y eut une voix venant du ciel : « Toi, tu es mon Fils bien-aimé ; en toi, je trouve ma joie. » *(Luc 3, 21-22)*

### 2. Les noces de Cana

Il y eut un mariage à Cana de Galilée. (...) Or, on manqua de vin. La mère de Jésus lui dit : « Ils n'ont pas de vin. » (...) Sa mère dit à ceux qui servaient : « Tout ce qu'il vous dira, faites-le. » (...) Jésus dit à ceux qui servaient : « Remplissez d'eau les jarres. » Et ils les remplirent jusqu'au bord. Il leur dit : « Maintenant, puisez, et portez-en au maître du repas. » Ils lui en portèrent. Et celui-ci goûta l'eau changée en vin. *(Jean 2, 1-12)*

### 3. Annonce du Royaume de Dieu et invitation à la conversion

Après l'arrestation de Jean, Jésus partit pour la Galilée proclamer l'Évangile de Dieu ; il disait : « Les temps sont accomplis : le règne de Dieu est tout proche. Convertissez-vous et croyez à l'Évangile. » *(Marc 1, 14-15)*

### 4. La transfiguration

Jésus prit avec lui Pierre, Jean et Jacques, et il gravit la montagne pour prier. Pendant qu'il priait, l'aspect de son visage devint autre, et son vêtement devint d'une blancheur éblouissante. (…) Ils virent la gloire de Jésus. (…); une nuée survint et les couvrit de son ombre ; (…) Et, de la nuée, une voix se fit entendre : « Celui-ci est mon Fils, celui que j'ai choisi, écoutez-le. » *(Luc 9, 28-35)*

### 5. L'institution de l'Eucharistie

Pendant le repas, Jésus, ayant pris du pain et prononcé la bénédiction, le rompit et, le donnant aux disciples, il dit : « Prenez, mangez : ceci est mon corps. » Puis, ayant pris une coupe et ayant rendu grâce, il la leur donna, en disant : « Buvez-en tous, car ceci est mon sang, le sang de l'Alliance, versé pour la multitude en rémission des péchés. » *(Matthieu 26, 26-28)*





## Misterio argitsuak - Kristoren bizi publikoa

### 1. Jesus bataiatua

Herri guzia bataiatzen ari zela eta Jesus ere bataiaturik otoitzean zagola, zerua zabaldu zen, eta Izpiritu Saindua gainerat jautsi zitzaion gorputz itxuran, uso bat bezala. Eta mintzo bat etorri zen zerutik : « Zu zaitut neure Seme maitea, zu zaitut atsegin. » *(Lk 3, 21-22)*

### 2. Jesus Kanako ezteietan

Hirugarren egunean, ezteiak izan ziren Galileako Kanan. (…) Eta arnoa eskastu baitzen, amak Jesusi erran zion : « Arnorik ez dute. » (…) Jesusen amak erran zioten zerbitzarieri : « Erranen dauzuena egizue . » (...) Jesusek zerbitzarieri erran zioten : «Bete untziak urez. » Gaineraino bete zituzten. Orduan, erran zioten : « Erauts, orai, eta ereman mahaizainari. » Hala egin zuten. Mahaizainak ur arnotua jastatu zuen, nondik zen jakin gabe. *(Jn. 2, 1-12)*

### 3. Jesusek Erresuma mezutzen

Joanes preso sartua izan zelarik, Jesus Galilearat etorri zen eta Jainkoaren berriona oihukatzen zuen, erranez : « Betea da denbora, eta hurbildua Jainkoaren erregetza. Bihozberri zaitezte eta sinets berriona. » *(Mk 1, 14-15)*

### 4. Jesus itxuraldatua

Petri, Joani eta Jakobe berekin hartu eta mendirat igan zen Jesus, otoitz egiteko. (…) Jesusen aintza eta harekin zauden bi gizonak ikusi zituzten. (…) hodei batek estali zituen, eta beldurtu ziren hodeian sartzean. Mintzo bat izan zen hodeitik : « Hau da nere Semea, nik hautatua. Entzun ezazue ! » *(Lk 9, 28-36)*

### 5. Lehen eukaristia

Jaten ari zirela, Jesusek ogia hartu zuen eta, goresmenak erranik, zatitu eta dizipulueri eman zioten, erranez : « Har zazue eta jan ; hau nere gorputza da. » Gero, kopa hartu zuen eta, eskerrak bihurtu ondoan, eman zioten, erranez : « Edan ezazue denek huntarik, hau nere odola baita, Jainkoarekilako elkargoa berritzen duena, bekatuen barkatzeko guzien alde ixuria. » *(Mt 26, 26-28)*

## Mystères douloureux - Mort du Christ

### 1. Jésus agonise au Jardin des Oliviers

Il commença à ressentir tristesse et angoisse. Il leur dit alors : « Mon âme est triste à en mourir. Restez ici et veillez avec moi. » Allant un peu plus loin, il tomba face contre terre en priant : « Mon Père, s'il est possible, que cette coupe passe loin de moi ! Cependant, non pas comme moi, je veux, mais comme toi, tu veux. » *(Matthieu 26, 37-39)*

### 2. Jésus est flagellé

Quant à Jésus, Pilate le fit flageller, et il le leur livra pour qu'il soit crucifié. *(Matthieu 27, 26)*

C'est pour toi que j'endure l'insulte, que la honte me couvre le visage. *(Psaume 68, 8)*

### 3. Jésus est couronné d'épines

Ils lui enlevèrent ses vêtements et le couvrirent d'un manteau rouge. Puis, avec des épines, ils tressèrent une couronne, et la posèrent sur sa tête ; ils lui mirent un roseau dans la main droite et, pour se moquer de lui, ils s'agenouillaient devant lui en disant : « Salut, roi de Juifs ! » Et, après avoir craché sur lui, ils prirent le roseau, et ils le frappaient à la tête. *(Matthieu 27, 28-30)*

### 4. Jésus porte sa croix

Jésus, portant lui-même sa croix, sortit en direction du lieu dit Le Crâne (ou Calvaire), qui se dit en hébreu Golgotha *(Jean 19, 17)*. Accablé, prostré, à bout de forces, tout le jour j'avance dans le noir *(Psaume 37, 7)*. Si je faiblis, on rit, on s'attroupe, des misérables s'attroupent contre moi *(Psaume 34, 15)*.

### 5. Jésus meurt sur la croix

Sachant que tout, désormais, était achevé pour que l'Ecriture s'accomplisse jusqu'au bout, Jésus dit : « J'ai soif. » (…) Quand il eut pris le vinaigre, Jésus dit : « Tout est accompli. » Puis, inclinant la tête, il remit l'esprit. *(Jean 19, 28.30)*





## Oinazezko misterioak - Kristoren heriotzea

### 1. Jesusen agonia

Petri eta Zebedeoren bi semeak berekin harturik, atsegabe eta laztura senditzen hasi zen ; orduan erran zioten : « Atsegabez hilzorian naiz. Egon hemen eta zaudezte atzarririk enekin. » Eta aitzinaxeago joanik, ahuspez erori zen, otoizka, erranez : « Ene Aita, ahal bada, nereganik urrun ezazu edari samin hau. Halere, egin bedi zuk nahi bezala, ez nik nahi bezala. » *(Mt 26, 37-39)*

### 2. Jesus azotatua

Orduan Pilatok Jesus azotarazi zuen, eta heien eskuetarat eman, gurutzitza zezaten *(Mt 27, 26).*

Zuregatik jasan dut laidoa, zuregatik estali daut ahalgeak aurpegia *(Salmo 68, 8).*

### 3. Jesus elorriz koronatua

Soinekoak kendu eta kapa gorri batez jantzi zuten. Elorri korona ezarri zioten buruan eta kanabera bat eskuineko eskuan. Aitzinean belaunikatuz, trufatu zuten, ziotela : « Agur, juduen erregea ! » *(Mt 27, 28-30)*

### 4. Jesus gurutzeaz kargatua

Jesus gurutzea berak zeramala, hiritik «Buruhezur», hebrearrez Golgota, deitu tokirat atera zen *(Jean 19, 17)*. Konkor eta makur nabil, egun guzian kopeta ilun *(Salmo 37, 7)*. Bainan erori naizenean, heien bozkarioa ! Nere kontra bildu dira joka, zergatik ez dakitala larrutzen naute, geldigabe irainka *(Salmo 34, 15)*.

### 5. Jesusen heriotzea

Gero, Jesusek, guzia egina zela jakinik, Liburu Sainduak diona bete zadin, erran zuen: «Egarri naiz». (…) Ozpina hartu zuenean, Jesusek erran zuen: «Dena egina da.» Eta, burua apaldurik, azken hatsa eman zuen. *(Jn 19, 28.30)*

## ↻ Mystères glorieux - Résurrection du Christ

### 1. Jésus ressuscite

Le premier jour de la semaine, à la pointe de l'aurore, les femmes se rendirent au tombeau, portant les aromates qu'elles avaient préparés. Elles trouvèrent la pierre roulée sur le côté du tombeau. Elles entrèrent, mais ne trouvèrent pas le corps du Seigneur Jésus. Alors qu'elles étaient désemparées, voici que deux hommes se tinrent devant elles en habit éblouissant. (…) Ils leur dirent : « Pourquoi cherchez-vous le Vivant parmi les morts ? Il n'est pas ici, il est ressuscité. » *(Luc 24, 1-6)*

### 2. Jésus monte au ciel

Tandis qu'il les bénissait, il se sépara d'eux et il était emporté au ciel. Ils se prosternèrent devant lui, puis ils retournèrent à Jérusalem, en grande joie. Et ils étaient sans cesse dans le Temple à bénir Dieu. *(Luc 24, 51-53)*

### 3. Le Saint-Esprit descend sur l'Église

« Vous allez recevoir une force quand le Saint-Esprit viendra sur vous ; vous serez alors mes témoins à Jérusalem, dans toute la Judée et la Samarie, et jusqu'aux extrémités de la terre. » *(Actes 1, 8)*

### 4. Marie est élevée dans les cieux

Au terme de sa vie, Marie est élevée corps et âme, près de son Fils ; elle est préservée de la corruption du tombeau.

« C'est dans le Christ que tous recevront la vie, mais chacun à son rang : en premier, le Christ, et ensuite, lors du retour du Christ, ceux qui lui appartiennent. » *(1 Corinthiens 15, 22-23)*

### 5. Marie est couronnée dans les cieux

Un grand signe apparut dans le ciel : une Femme, ayant le soleil pour manteau, la lune sous les pieds, et sur la tête une couronne de douze étoiles. *(Apocalypse 12, 1)*

*Prière :*

*Que ta grâce, Seigneur notre Dieu, se répande en nos cœurs ; et maintenant que nous connaissons par le message de l'ange, l'incarnation de ton Fils bien aimé, fais que nous soyons conduits par sa passion et par sa croix jusqu'à la gloire de la résurrection. Par le Christ notre Seigneur. Amen.*





## ↻ Loriozko misterioak - Kristoren piztea

### 1. Jesusen piztea

Bainan asteko lehen egunean, goizean goizik joan ziren emazteak hilobirat, prestatu gantzugailuak berekin zituztela. Hilobian sartzeko harria itzulikaturik aurkitu zuten. Sartu eta Jesus Jaunaren gorputza ez zuten aurkitu. Zer pentsa ez jakin zaudela, bi gizon agertu zitzaizkioten, soinekoak dirdiran. Emazteek, iziturik, aurpegia lurrerat apaldu zuten, bainan gizon heiek erran zieten : « Bizi dena zergatik bilatzen duzue hilen artean ? Ez da hemen, piztua da ! » *(Lk 24, 1-6)*

### 2. Jesus zerurat altxatua

Benedikatzen zituela, heienganik berexi zen, eta zerurat eremana izan zen. Heiek, Jesusen aitzinean ahuspekatu ondoan, Jerusalemerat itzuli ziren bozkario handitan. Eta beti tenpluan ziren Jainkoaren goraipatzen. *(Lk 24, 51-53)*

### 3. Mendekoste

« Gainerat jautsiko zaizuen Izpiritu Sainduaren indarra ukanen duzue, eta nere lekuko izanen zirezte Jerusalemen, Judea osoan, Samarian eta lurraren bazterreraino. » *(Eg. 1, 8)*

### 4. Maria zerurat altxatua

« Eta Adamengatik jende guziak hiltzen diren bezala, Kristorengatik guziak bizirat itzuliko dira. Bainan bakotxa bere aldian: lehenik Kristo, lehen fruitu bezala ; gero, Kristorenak, hau berriz etortzean. » *(1 Ko15, 22-23)*

### 5. Maria koronatua

Seinale handi bat agertu zen zeruan : emazte bat, eguzkiz jantzia, ilargia oinen pean eta hamabi izarreko korona buruan. *(Apoka 12, 1)*

*Otoitza :*

*Zure grazia, Jainko Jauna, ixur dadila gure bihotzetarat ; eta orai baitakigu aingeruaren mezuari esker zure seme maitea gizon egin dela, egizu haren pasione eta gurutzearen bidez hel gaiten piztearen osperaino. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.*